



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

PARTAIDETZA ETA GARDENTASUNA
ETXEBIZITZA-POLITIKA
PUBLIKOETAN
Begirada bat Etxebizitzaren Euskal
Behatokitik

Sevilla 2015

administrazioa

ZER BALDINTZA BETE BEHAR DIRA HERRITARREK IKT-EN BIDEZ PARTE HAR DEZATEN ETA PARTE-HARTZE HORI ERAGINKORRA IZAN DADIN?

Parte hartzeko proiektu guztiak ez dira berdinak. Etxebizitzaren gai-alorrak alderdi ugari ditu, eta askotariko ikuspegiak izan ohi dira haren gainean; beraz, **komunikaziorako plataforma eta ingurune askotarikoak baliatu behar dira**. Ezin dira komunikazio-beharrizanak IKTen bidez soilik ase, baztertu egingo baikenuke gizartearen zati handi bat, informazio-bitarteko horiek baliatzen ez dituenak.

Horrez gainera, eta parte hartzeko prozesuaren helburuei erreparatuta, ez zaie informazio bera eskaintzen eragile guztiei, eta ez da haiengandik ekarpen berberak jasotzerik espero. Beti egiten da **teknologiaren zirkuituetatik kanpora dauden herritarren iritziak aintzat hartzeko ahalegina**. Eta ekarpenak eragile taldeen arabera bereizi eta multzokatzeko ahalegina egiten da. Era berean, garrantzi handikoa da **proiektua zer jenderi zuzentzen zaion** jakitea.

Argi izan behar dira **arau-jokoak**, itzaropenik ez itotzeko. Argi eta garbi adierazi behar da zer lortu nahi den, nola lortu nahi den eta, emaitzak jakinda, **zer konpromiso hartzen duen bere gain administrazioak**.

Lan-agiriek xede-lekura iritsi behar dute eta betetzeko bidean jarri behar dituzte parte hartzeko proiektuak finkatu dituen **hasierako helburuak**.

Hori guztia IKT inguruetan soilik egingo bada, ezinbestekoa da **mezuak lantzea**. Xedeko herritarrak aintzat hartuta, haien parte-hartzea indartzeko gaitasuna izan behar da. Haien hizkuntza bera erabili behar da hartu-emanetan. Informazio-mezu erraz baina eraginkorrek landu behar dira.

Illo hori jorratuta, **parte hartzeko ingurune batera eraman ditugu** milaka pertsonarengana iristen diren **gestio-inguruneak** (Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua). Hau da, gertukoena diren bitartekoak erabili behar ditugu, informazio-iturri eta komunikaziorako bide errazak sortzeko. Etengabe lantzen dugu datuen, beharizanen eta kexen bilketa eskura ditugun bitartekoak erabilia: inkestak, sare sozialak (Facebook eta Twitter) eta sailtako web-orrien bidez (Enplegu eta Gizarte Politikako Saileko, Etxebizitzaren Euskal Behatokiko, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuko web-orrien bidez eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiko blogaren bidez) egiten diren ekarpenak. Horrez gainera, parte hartzeko prozesu bati ekiten diogunean, parte hartzerako xede berariazkoa duen web-orri bat sortzen dugu, eta era berean, Jaurlaritzako Irekia web-atarian kaleratzen dugu proiektua.

Halaber, IKTak gehien erabiltzen dituzten kolektiboetara jotzen dugu, unibertsitateetara, lanbide-elkargoetara eta antzekoetara, laguntza handia ematen baitigute **proiektua egiaztatzeko**.

Administrazioaren burokraziak aukera eman digu, gure kasuan, eragile guztiekin hitz egiteko tradizio handia eta aspaldikoa izatea, Jaurlaritzak ematekoak dituen xedapenetan entzunak izateko betebeharraren ondorioz. Hitz egiteko ohitura dugu, baina, batik bat, **entzun eta solasean aritzekoa**.

BALDINTZARIK EMATEN AL DA GAUR EGUNGO KULTURA-INGURUNEAN?

Bai. Gure eremuan bai, argi eta garbi. Parte hartzeko behar den jakintza eta gaitasuna dute pertsonak. Saiakera ugari egin ondoren, parte hartzeko jakin-mina eta morboa piztu ditugu. Bada oraindik egiten diren ekarpenak bazterrerara uzteko interesa hauspotzen duenik administrazioan, baina guri dagokigunez bederen, ikusten dugu parte hartzearen kultura txertatu egin dela administrazioan, eta gaur egun planteatzen diren parte hartzeko prozesuak ez direla gobernuaren ekimenak errotik aldatzeko arriskuaren beldurrez ikusten, jakin-minez hartzen baitira. **Elkarrizketa garden eta etengabea ezarri da gizartearekin**.

Oso garrantzitsua da gizartearekin komunikatzeko eta harengana hurbiltzeko estrategia bat izatea parte-hartze handiagoa izan dezan. Horretarako agian baliabide ekonomikoak eta dedikazioa behar diren arren, ezinbestean erabili behar dira.

ZER EGIN BEHAR DA ONLINE PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO AURKEZTEN DUGUNAREN MODUKO PLATAFORMETAN?

Parte-hartzea ez da helburua, ez da, berez, xedea; bitartekoa baino ez da. Zerbaitetarako parte hartzen du jendeak, trukean zerbait lortzeko. Hori horrela, **konfiantza eskaini behar du administrazioak**, eta konfiantza horren sortzaile izan behar dute **xedekako emaitzek, prozesuen jarraipenek, informazio etengabeak eta amaierako emaitzek**.

Zer planteatzen den azaldu behar da, nola egiten ari diren gauzak, zertarako eta zer joko-arauekin eta zer konpromiso dituen administrazioak egiten diren ekarpenekin.

Gurean, lan handiena dakarren prozesu-atala da, hain justu, **parte-hartzaile guztiei azaltzea zer egin den haien ekarpenarekin, non azalduko den hura, eta, batik bat, ekarpena onartu ez baldin bada, zergatik ez den onartu argitzea**.

Parte hartu genuen azken prozesuari, Etxebizitza Bideratzeko 2013-2016 Planari, erreparatuz gero, datu hauek nabarmentzen dira:

Jasotako proposamenak eta proposamenen lehen azterketa-prozesua

JASOTAKO PROPOSAMEN GUZTIAK

Guztira 7.824 proposamen jaso dira; herritarrek 7.615 proposamen egin dituzte eta eragile adituek 209.

PROPOSAMENEN LEHEN AZTERKETA-PROZESUA

Bai herritarrek bai eragile adituek egindako proposamenen lehenengo azterketa egiteko prozesuak bi fase izan ditu:

- 1. FASEA- BALIOZKOTZEA: Proposamen moduan aurkeztu arren benetan proposamenak ez direnak kentzea, eta iritzi, iruzkin eta abar gisa katalogatzea.
- 2. FASEA- INTEGRAZIOA: Proposamen berdinak multzokatzea. Horrela, proposamen ezberdinekin behin betiko zerrenda bat osatuko da eta Etxebizitza Bideratzeko Plana idatzi duen taldeak zerrenda hau aztertuko du.



Eta horren guztiaren ondorio:

Proposamenen integrazioa

Etxebizitza Bideratzeko Plana idatzi duen taldeak aurkeztu diren proposamenak baloratu ditu, eta 3 egoera bereziki ditu:

- Parte hartzeko prozesua baino lehen zirriborroan sartuta ez zeuden baina planean sartu nahi diren proposamenak. Proposamen hauek parte hartzeko prozesuaren ondoriozko "integrazio garbiak" dira.
- Zirriborroan jasotzen ziren proposamenak, zirriborroa bera indartzen dutenak.
- Arrazoi ezberdinak direla medio onartu ez diren proposamenak:
 - Gutxiengo baten iritziak izatea (6 proposamenak).
 - Legegintzako eskumenek ez izatea (adibidez, alokaiaren arautzea) (68 proposamenak).
 - Beste arrazoi batzuk (adibidez, aurrekontuak horretarako aukera ematea) (61 proposamenak).

Azterketa egin ostean ikusten da herritarren eta eragileen 387 proposamen planean jasoko direla; horietatik 132 parte hartzeko prozesuaren ondoriozko "integrazio garbiak" dira eta 225 proposamen bat datoz plana baino lehen idatzitako zirriborroan jasotakoekin. Beraz, herritarren 357 proposamen (%73) sartuko dira planean.



ARAZOAK

Arazo handienak **zenbait jarrera ezegokiren ondoriozkoak dira**, parte-hartzea administrazioaren ekintzak justifikatzeko eta publiziterako eta propagandarako tresna baino ez denaren ideia soilik baitarabil zenbaitek. Itxurakeria hutsa.

Administrazioak berak aldaketak onartzeko duen gaitasuna izan daiteke beste arazo-iturri bat, hasierako planteamendua aldatzeko gerririk ez baldin badu. Prozesu irekietan, prest izan behar dugu **gure kontraesanak onartzeko**.

AUKERAN DAUDEN IRTENBIDEAK

Gizarteari itzultzea jasotako ekarpenak. Behin betiko barneratu behar dugu parte hartzeko prozesuek hobetu egiten dituela gobernuak gizartearen beharrezan egiazkoei ematen dizkien erantzunak eta oinak lurrean izaten laguntzen digutela. Hori horrela izango bada, gure ideietako batzuk baztertu behar ditugu eta **komunikazioa politika publikoak egiteko modu bat dela onartu behar dugu. Parte-hartzea barneratu behar da** sailaren eguneroko jardunean.

PROIEKTUETAN ERALDATZEA.

Herritarrek etxebizitzaren gai-alorrean parte hartzeko asmo handiko proiektu bat aurkeztu genuen 2012. urtean Nazio Batuen Zerbitzu Publikoen alorreko Sarira, "erabaki publikoen prozesuetan herritarren partaidetza hobetzen mekanismo berritzaileen bidez" izeneko kategorian. Lehen saria jaso genuen kategoria horretan.

Kategoria horren eskakizuna zen e-partaidetza erraztea, kontzeptu berri bat barneratzea (berariaz berritasuna dakarren ikuspegi bat hartzea arazoei irtenbidea emateko, politikak egiteko edo diseinuak inplementatzeko, herrialde edo eskualde jakin baten testuinguruan, herritarrek, eta bereziki, baliabide ekonomiko gutxien dituztenek, erabakiak hartzeko garaian duten parte-hartzea handitzeko), gobernuak herritarren eskakizunei eta beharrezan erantzuteko duen gaitasuna handitzea, erakunde-mekanismo berrien bidez sustatzea parte-hartzea eta administrazioa eraldatzea.

Proiektu batekin, "Etxebizitza-gaietan, zure iritzia kontuan", eta hiru azpiproiektu hauekin parte hartu genuen:

ETXEBIZITZAREN ALDEKO GIZARTE-ITUNA: 79 eragile sozial eta ekonomiko izenpetua: 12 eragile eta erakunde sozial eta herritan; 14 lanbide-eragile; 12 sektore-eragile; udal-izaerako 13 hirigintza-sozietate; 6 sozietate publiko eta partaidetuak; 3 unibertsitate; 18 finantza-erakunde; eta Eusko Jaurlaritza. Lan-jardunaldien metodologia erabili zen (world cafe izeneko teknika baliatuz), eta bi aldeko bilerak egin ziren, 120 pertsonaren eta 90 eragile instituzional, sozial eta ekonomikoen parte-hartzearekin.

Azkenik, 3 konpromiso handi hauek iritsi ziren:

- 1) 90.000 familiaren bizitegi-premiak asebetetzea.
- 2) Behar adinako alokairu-parke publikoa eratzea, eta Itunaren indarraldiaren amaieran lortzea sustatutako eraikin publikoen %50 alokairu-erregimenekoak izatea.
- 3) Hiri-espazioak eraberritzea eta eraikitako parkearen baldintzak hobetzea 250.000 birgaitze-jardun eginez.

ETXEBIZITZAREN ETA HIRI-BERRONERATZEAREN 2010-2013 PLAN ZUZENTZAILEA EGITEA

EMAITZAK:

- Etxebizitza Plan Zuzendarian islatu dira jasotako proposamenen %85.

PARTE-HARTZEA

- 15.748 sarrera (14.764 parte-hartzaile online plataforman, 333 jarraitzaile Facebooken, 173 parte-hartzaile aditu taldeei egindako inkestetan)
- 5.230 inkesta erantzun dira.
- 569 post jarri dira forotan.
- 120 proposamen egin dira.

EUSKADIKO ETXEBIZITZA LEGEA EGITEKO PROZESUAN

PARTE-HARTZEA ETA EMAITZAK:

- 17.187 bisita izan ditu plataformak
- 1349 iritzi eman dira 8 inkestatan
- 874 iritzi eman dira 10 forotan
- 143 galdera egin zaizkio lehendakariari eta sailburuari
- 312 jarraitzaile sare sozialetan

- 188 proposamen egin dira Etxebizitzari buruzko lege-aurreproiektua hobetzeko
- o Proposamenen %44 onartu da

